



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren 2014ko jardueren memoria

Etxebizitzaren Euskal Behatokia

2015

administración

administración

2014an, Etxebizitzaren Euskal Behatokia bere jardura dibertsifikatzen ahalegindu da, bere helburu nagusietako bat lortzeko: **informazio eta ezagutzarako sarbidea eta transferentzia bideratzea etxebizitzaren esparruan**; eta hori hiru aldetatik egin du: esparru publikoan erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko; sektoreko eragileen eta profesionalen eskaria betetzeko; eta etxebizitzaren errealitatea ikuspuntu objektibo eta instituzionaletik azaltzeko erreferentea izateko.

Ikuspegiak askotarikoak izan dira oso: berriz egin du urteko jardunaldia, bertaratutakoen kopurua inoiz baino handiagoa izan dela; txostenak argitaratu ditu; gaurkotasuneko azterketak egin ditu; zenbait kongresutan egon da txostengile moduan; 2 albiste-buletin argitaratu ditu (Newsletter); beste autonomia-erkidego batzuetako etxebizitza-arduradun eta -teknikariekin hitz egin ahal izan du; elkarlanean aritu da unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin; eta etengabe hobetzeko eta berritzeko dinamikak garatu ditu.

Horren ondorioz, berriz handitu da webgunera eta blog-era egindako bisiten kopurua, eta eragin mediatikoa handia izan da; horren adierazgarri izan dira prentsa-artikuluak eta irriatiak eskatutako elkarrizketak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren argitalpenek eraginda.

Etxebizitzaren Euskal Behatokia informazio- eta ezagutza-gune bat da; bertan etengabe aldatzen ari den sektore horretako Etxebizitza Sailburuordetzaren estatistika ofizial guztiak eta egiten diren azterlan eta txosten guztiak biltzen dira, ikuspuntu objektibo bat eskaintzeko asmoarekin.

Horregatik, ikerketak ez ezik, gainerako jardunak eta txostenak ere egitea beharrezkoa da behatokiaren eginkizuna betetzeko. Ezinbestekoa da argitaratzeko eta gizarteratzeko egiten direnek jardueretan eragin-ehuneko handia izatea.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren kontzeptuzko definizioak eraginda, funtsezko elementua da etengabe hobetzeko, berritzeko konpromiso iraunkorra, bezeroarengana bideratuta egotea, eta hari kalitatea, zerbitzua eta fidagarritasuna ematea.

Txosten honen bidez jarduera-urte bat laburtu nahi da; jarduera horietan, honako hauen beharrak bete nahi izan dira: erabaki politikoak hartzeko prozesuarenak, sektoreko profesionalenak eta akademikoena, komunikabideenak eta herritarrenak.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eguneratuta dauka www.euskadi.eus/viviendaeuskadi web-orria, eta bertan zentralizatzen du bere jarduna, eta argitaratzen ditu txosten, estatistika, jardunaldi eta abar guztiak. Era berean, bertatik sar daitezke <http://viviendaeuskadi.blog.euskadi.net/> blog-ean, newsletter-etan, eta grafikoetan adierazita ikus daitezke etxebizitzari buruzko datuak, GISen bidez eta abar.

Txostenak eta ikerketak

2014an, Etxebizitzaren Euskal Behatokia txostenen diseinua hobetzen ahalegindu da, estetikari dagokionez bezala edukiei dagokienez ere, eta ahalegin berezia egin du haiek eskuraerrazagoak, erakargarriagoak eta laburragoak izateko.

Ilido horretan, **etxebizitza arloko 25 txosten** egin dira, eta haietan Eusko Jaurlaritzaren estatistika-plan ofizialean etxebizitzarako dagoen zatia eta Erregistratzaileen Elkargoaren Erregistro Estatistika garatzen dira.

ARGITALPENEN KRONOGRAMA	
URTARRILA	Etxebizitza hasiei eta amaituei buruzko estatistika, 2013ko 4. hiruhilekoa
OTSAILA	Etxebizitza- eta lurzoru-arloko jardura babesgarrien finantzaketari buruzko estatistika. (JBFE), 2013ko 4. hiruhilekoa Erregistro Estatistika, 2013ko 4. hiruhilekoa
MARTXOA	Higiezin-eskaintzari buruzko inkesta, 2013ko 4. hiruhilekoa Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika (EEEE), 2013ko 4. hiruhilekoa
APIRILA	Etxebizitza hasiei eta amaituei buruzko estatistika (EHAE), 2014ko 1. hiruhilekoa Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistikari buruzko txostena, 2013
MAIATZA	Higiezin-eskaintzari buruzko inkesta, 2014ko 1. hiruhilekoa Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika (EEEE), 2014ko 1. hiruhilekoa Etxebizitza- eta lurzoru-arloko jardura babesgarrien finantzaketari buruzko estatistika. (JBFE), 2014ko 1. hiruhilekoa Erregistro Estatistika 2014ko 1. hiruhilekoa
EKAINA	Etxebizitza hutsei buruzko estatistika (EHE)-2013 • Etxebizitzaren beharrei eta eskariei buruzko inkesta (EBEI)-2013
UZTAILA	Etxebizitza hasiei eta amaituei buruzko estatistika (EHAE), 2014ko 2. hiruhilekoa Etxebizitzaren beharrei eta eskariei buruzko estatistikaren gaineko txostena (EBEI) 2013 Etxebizitza hutsei buruzko txostena 2013
ABUZTUA	Higiezin-eskaintzari buruzko inkesta, 2014ko 2. hiruhilekoa Etxebizitza- eta lurzoru-arloko jardura babesgarrien finantzaketari buruzko estatistika. (JBFE), 2014ko 2. hiruhilekoa Erregistro Estatistika 2014ko 2. hiruhilekoa
IRAILA URRIA	Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika (EEEE), 2014ko 2. hiruhilekoa Etxebizitza hasiei eta amaituei buruzko estatistika, (EHAE), 2014ko 3. hiruhilekoa
AZAROA	Higiezin-eskaintzari buruzko inkesta, 2014ko 3. hiruhilekoa Etxebizitza- eta lurzoru-arloko jardura babesgarrien finantzaketari buruzko estatistika. (JBFE), 2014ko 3. hiruhilekoa Erregistro Estatistika 2014ko 3. hiruhilekoa
ABENDUA	Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika (EEEE), 2014ko 3. hiruhilekoa

Eusko Jaurlaritzak etxebizitza-arloan izandako jardura orokorren **bost ebaluazio-txosten** egin dira, eta herritarrei emandako zerbitzuak aztertu, haien gogobetetze-maila zein den zuzenean jakiteko:

ARGITALPENEN KRONOGRAMA	
EKAINA UZTAILA IRAILA AZAROA	Etxebizitzaren eta Hiri-berroneratzearen Plan Zuzentzailearen ex post ebaluazioa, 2013-2016 Etxebizitzaren eskatzaileen pertzepzioaren ebaluazioa, 2013 Alokairu-politikaren ebaluazioa Birgaitze-jardunen ebaluazioa Etxebizitza-politikaren ebaluazio osoa

Herritarren parte-hartzea ezaugarri izan dute beti Etxebizitza Sailburuordetzak eta, beraz, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak beren lan egiteko moduan. Horrenbestez, herritarrek parte hartzeko proiektu asko egin dira, herritarrek eta etxebizitzaren sektorea ezagutu eta konprometitzeko etxebizitza-politika publikoen lanketan. Horren adierazgarria da 2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzentzailea, idazten zen bitartean herritarrek parte hartzeko ambizio handiko proiektu bat garatu baitzuen, eta, haren ondorioz, ia 8.000 ekarpenen %73 eta inplikaturako 5.000 pertsona baino gehiago bildu.

Prozesuaren ondorioz, etxebizitza eskuratzeko moduak aztertzeke eskatzen zuten parte-hartzaileek, hala nola enplegu- eta birgaitze-bide hibridoak eta abar aztertzeke, eta haiek guztiak Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez ikertu behar ziren.

Sektoreko profesionalen eta herritarren ekarpenek taxututako behar horri Etxebizitza Sailburuordetzarenak (landu diren ikerketek ere zehaztuta) eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiarenak gehitu zaizkio, testuinguru aldakorraren ondorioz, zeinak informazio-premia ezinbestekoa baitu.

Azkenean, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak hainbat txosten egin zituen, 2014. urtean zehar sortutako eskari guztietan argi ematen ahalegintzeko. Eta haiek guztiak **21 ad hoc azterlanetan** mamitu ziren; 20 argitaratu egin dira:

ARGITALPENEN KRONOGRAMA	
OTSAILA MARTXOA MAIATZA	Ikuskaritza Zerbitzuaren Txostena-Zigorra 2013 Europako Parlamentuak EBko etxebizitza sozialaz egindako txostenari buruzko balorazioak Birgaitzearen ebaluazio azkarra Hiri-apartzeria. Alderantzizko hipoteka Etxebizitza-programako gastuaren txosten konparatiboa autonomia-erkidegoka
EKAINA	Etxebizitza eta atzerritarrak Etxebizitza babestuaren esleipenaren azterketa, Ekitatea Ukoen azterketa Enplegua eta birgaitzea Europa osoko etxebizitza-politikaren azterketa
UZTAILA IRAILA	Etxebizitzaren finantzaketaren ebaluazioa, 2013 Etxebizitza eta gazteak Babes ofizialeko etxebizitzak azken 50 urteetan izandako bilakaeraren azterketa Hipoteka-betearazpenak eta alokairu-kaleratzeak
URRIA AZAROA ABENDUA	Laburpen-txostena, 2013 Emakumeari eta etxebizitzari buruzko txostena EAEko alokairuko etxebizitzaren eskaintzari eta eskariari buruzko txostena Etxebizitzan egindako gastuari buruzko ad hoc txostena toki-entitateko %1 LOGEMENT ad hoc txostena Etxebizitza-alokairua autonomia-erkidegoetan

Eta, azkenik, jakinda zeinen garrantzitsua den erraz lortzea informazio eguneratua Euskadiko etxebizitzaren testuinguruan garrantzitsuak diren zenbait adierazleri buruz, 2013ko eta 2014ko **bost agente-koadro** egin dira.

ARGITALPENEN KRONOGRAMA	
MARTXOA EKAINA IRAILA ABENDUA	2013ko 3. hiruhilekoko agente-koadroa 2013ko 4. hiruhilekoko agente-koadroa 2014ko 1. hiruhilekoko agente-koadroa 2014ko 2. hiruhilekoko agente-koadroa 2014ko 3. hiruhilekoko agente-koadroa

ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

Etxebizitzaren merkatuko adierazleak. EAE. (3. hiruhilekoa. 2014)

Salneurri eta kostuak Merkatuaren jarduera ▶
Finantzaketa ▶ Lan Merkatua ▶

* a.g. (argitaratu gabe)

SALNEURRI ETA KOSTUAK	URTEROKO DATUAK				HIRUHILEROKO DATUAK				HILEROKO DATUAK (2014)					
	2010	2011	2012	2013	II-13	III-13	IV-13	I-14	II-14	III-14	eka-14	uzt-14	abu-14	ira-14
Eskaintza salneurriak (Etxebizitza eskaintza. Eusko Jaurlaritza)														
Etxebizitza aske berria (Euro/m ² erabilgarriko)	3.877,4	3.769,5	3.742,1	3.486,2	3.640,0	3.559,9	3.486,2	3.436,5	3.398,9	3.364,9				
Urte-artereko tasa	-3,8	-2,8	-0,7	-6,8	-2,5	-4,6	-6,8	-7,1	-6,6	-5,5				
Etxebizitza erabilia (Euro/m ² erabilgarriko)	3.891,0	3.841,6	3.564,7	3.171,7	3.337,2	3.243,1	3.171,7	3.090,3	3.065,1	3.058,2				
Urte-artereko tasa	3,0	-1,3	-7,2	-11,0	-11,5	-12,0	-11,0	-9,9	-8,2	-5,7				
Tasazioak. Etxebizitza Ministerioa														

Guztira, 51 txosten eta azterlan egin ditu Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2014an.

Jardunaldiak eta hitzaldiak

Jardunaldiak Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren parte-hartze aktiboarekin

Etxebizitza hutsa: Mobilizatzeko pizgarriak

2014an, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak berriz egin zuen bere jardunaldia, egin gabe urte bat egon ondoren.

Orduan, eta kontuan hartuta 2014an etxebizitza hutsei buruzko bi urtean behingo inkesta egiten zela EAEn, jardunaldia gai nagusi horren ingurukoa izatea erabaki zen.

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa egin zen 2014ko urriaren 23an, jende asko erakarri zuen, eta nazioartean zein nazioan maila handia duten zenbait txostengilek esku hartu zuten.

Horren adierazgarri, jardunaldiak estaldura mediatiko handia izan zuen, bai idatzizko prentsan, bai gainerako ikus-entzunezkoetan.



PROGRAMA

elkargune

JARDUNALDIA
Bilbo 23.10.2014
Bilboko Itasadiaria itsas museoa

Hutsik dauden etxebizitzak:
Horiek mobilizatzeko pizgarriak

Programa eta edukiak

09:30 | Hasiera ematea

Juan Maria Aburto, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Eusko Jaurlaritza

09:45 | **1. saioa: Etxebizitza hutsaren arazoaren neuria eta joerak. Ikuspegi ekonomiko eta soziala**

José Garcia - Montalvo, Ekonomia irakaslea, Unibersitat Pompeu Fabra,artzelona

Julio Vinuesa Angulo, Giza Geografian katedraduna Geografia Sailean, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa

Moderatzailea:
Iñigo Basañez, Etxebizitza Zuzendaria, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza

11:00 | Etenaldia - Kafea

11:45 | **2. saioa: Etxebizitza hutsak mobilizatzearon esperientziak**

Carlos Sala, Etxebizitzako idazkaria, Generalitat de Catalunya

Luis Antonio Ayesa Ajons, Etxebizitza Zerbitzuaren zuzendaria, Nafarroako Komunitateko Gobernuak

Miren Seratxaga, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragilearen zuzendaria, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza

Moderatzailea:
M^o Covadonga Solaguren, Etxebizitzako sailburuordea, Eusko Jaurlaritza

13:30 | Bazkaria

15:15 | **3. saioa: Nazioarteko esperientziak**

Helen Williams, Reino Unido Empty Homes-eko zuzendari exekutiboa, Erresuma Batua

Bruno Nys, Etxebizitzako Zerbitzuaren zuzendaria, BDU (Brusela Hiri Garapena), Bruselako Eskualdeko Zerbitzu Publikoa

Jean-Pierre Schaefer, Aduitua, Hiri Politiketarako Kontseilu Nazionalea, Frantzia

Moderatzailea:
Marcos Muro, Visesaren zuzendaria

17:00 | Ondorioak eta itxiera

M^o Covadonga Solaguren, Etxebizitzako sailburuordea, Eusko Jaurlaritza

Jardunaldiko Idazkaritza Teknikoa
Tel.: 944 398 210

Gobernu, administrazio eta politika publikoei buruzko nazioarteko V. kongresua, 2014.

V Congreso Internacional en Gobierno, Administración y Políticas Públicas

Inteligencia colectiva y talento para lo público

INAP



Sede INAP España
29, 30 septiembre y
01 octubre 2014

Gigapp-ek (Gobernu, administrazio eta politika publikoei buruz ikertzeko taldea: José Ortega y Gasset Fundazioa, Gregorio Marañón, Ortega y Gasset Ikerketa Institutu Unibertsitarioa) V. Nazioarteko Kongresua antolatu zuen INAPen egoitzan 2014ko irailaren 29, 30 eta urriaren 1ean.

Programak 49 lantalde bildu zituen, guztira 219 txosten eta 38 komunikazio aurkeztu ziren (257 lan guztira), 390 egilek, egilekidek eta panelistak esku hartu zuten, eta, haien osagarri, bost talde berezi izan ziren gai espezifikoekin.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "Etxebizitza-politiken ebaluazioa Eusko Jaurlaritzan" txostena aurkeztu zuen "Politika publikoen ebaluazioa eta kontuak ematea" lantaldearen barruan.

Jardunaldiak Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren lankidetzaz dokumentalarekin



Hiri-eraikuntza, -birgaitzea eta -eraberritzea: Erronka energetikoak eta etxebizitza sozialaren eginkizuna.

AVS Euskadik eta Visesak 2014ko azaroaren 13an eta 14an antolatutako jardunaldia. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak aurkeztutako txostenean lagundu zuen.

Diziplina anitzeko nazioarteko kongresua. Hiri-elkartasuna. Jateko eta etxebizitza duina izateko eskubidea

Euskal Herriko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin 2014ko maiatzaren 26an eta 27an Deustuko EHUko paraninfoan antolatutako jardunaldia. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak aurkeztutako txostenean lagundu zuen.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren webguneak eta blog-a

Aurreko 2014an, **Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren webguneak berriz ere** bisita **gehiago** izan zuen, 2013an baino **%34,4** gehiago.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren blogari dagokionez, gaurkotasuneko 12 artikulua argitaratu ditu etxebizitzaren sektoreari buruz, bai eta bi elkarrizketa sakon ere:

URTARRILA	2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzentzaileak alokairuaren eta hiri-birgaitzearen alde egiten du Banku Txarra: lehenengo urtea Zer egin hutsik dauden etxebizitzekin
MARTXOA	Hipoteka-berankortasuna <i>in crescendo</i> Hasiberrientzako HMISAKak
APIRILA	Euskadin, Eraikinen Azterketa Teknikoa (EAT) Eraikinen Ebaluazio Txosten bihurtzen da
MAIATZA	Hipoteka-legea aldatu eta urtebetera Aurrezki-kutxak fundazio bihurtzea
EKAINA	Estatuaren zerga-erreformak alokairuagatiko desgrabazioa ezabatzen du Etxebizitza hutsak nazioartean
UZTAILA	Atzerritarrak eta etxebizitza babestuak
ABUZTUA	Banku-berregituraketa egiteko 24.000 eskaera

MAIATZA	Elkarrizketa Villafranca del Penedésko udal-etxebizitzaren bulegoaren arduradun Rosa Blascori Elkarrizketa Sant Cugat del Vallésko Udaleko tokiko etxebizitza-bulegoko kide Rosa Bonet de Promusari

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren newsletter-a

2014an, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak **bi albiste-buletin edo newsletter** argitaratu ditu, bigarren eta laugarren hiru hileroan, txosten edo jardura garrantzitsuenekin. Alde horretatik, eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren webgunean eskura badaitezke ere, posta elektronikoz jaso daitezke argitaratzen direnean, lehenago web bidez erregistratuz gero:

Hiri Solidaritatea. Janari eta etxebizitza duinerako eskubidea



 Enplegu eta Gizarte
Politiketako Saila

Etxebizitza sailburuordetzak EHUk antolatutako nazioarteko diziplina anitzeko kongresuan " Hiri Solidaritatea. Janari eta etxebizitza duinerako eskubidea", pasa den maiatzean. Bigarren zatian bizitegi-baliabideen ustiapenari buruzko gaia landu zen.

[[dokumentua ireki](#)]



Birgaitze-esperientziak: Hiri-apartzeria Katalunian

Etxebizitza Plan Zuzendaria 2013-2016 prestatzeko esparruan prozesu parte-hartzailea ireki zuen Etxebizitza Behatokiak. Prozesu horri esker jarduketa batzuk identifikatu dira, hasieran planifikatutakoen osagarriak. Horietako bat hiri-apartzeriari lotutako jarduketak EAEn aplikatzeko potentzialari buruzko azterketa egitea da.

Partikularren arteko akordioa da hiri-apartzeria, batik bat Katalunian bultzatu dena. Akordio horren bitartez, pertsona batek edo pertsona-talde batek (apartzeroa) bere jabetzakoa ez den

Newsletter urrikoa:

The screenshot shows a newsletter header with the logo of 'ETXEBIZITZAK BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA' and a row of house icons, with one in red. The main title is 'HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK Jardunaldia'. Below it is a banner for 'JARDUNALDIA JORNADA' with the 'elkargune' logo and text in Basque and Spanish: 'Hutsik dauden etxebizitzak: Horiek mobilizatzeko pizgarriak' and 'La vivienda vacía: Incentivos para su movilización'. The main text describes the initiative by Euskal Behatokiak, aimed at mobilizing vacant housing. It mentions a forum in Bilbao at the Itzadarra Itzas Museum. The contact person is Juan Maria Aburto Rike, Director of the Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. A link is provided for the program and agenda.

ETXEBIZITZAK
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

8. zkia -2014ko Urria | [eus](#) | [es](#)

HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK Jardunaldia

JARDUNALDIA | Hutsik dauden etxebizitzak:
Horiek mobilizatzeko pizgarriak

JORNADA | La vivienda vacía:
Incentivos para su movilización

elkargune

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak, 2014ko urriaren 23rako antolatu du lan- eta hausnarketa-jardunaldi bat, etxebizitza hutsari buruzkoa. Hona Jardunaldiaren helburua: hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko jardunbide onak, Euskadin aplikatzeko modukoak, identifikatzea; hots, etxebizitza hutsen stock-a gutxitzeko zer neurri erabiltzen ari diren jakin, eta haiek Euskadin izan ditzaketen berezitasunei buruzko hausnarketa egitea.

Jarduera hori ELKARGUNE izeneko hausnarketa- eta eztabaida-foroan kokatu du Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sortu baitu foro hori. Gai horretako adituak bilduko dira Bilboko Itzadarra Itzas Museoa egingo den jardunaldi horretara, irakaskuntzatik eta administrazio publikotik etorrira, eta bakoitzak bere ikuspegia azalduko du, baita etxebizitza hutsaren arazoak izan ditzakeen irtenbideak ere Hutsik dauden etxebizitzaren inguruko arazoei buruz arituko gara ikuspegi ekonomiko eta sozialetik abiatuta, eta baita hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko zenbait esperientziari eta gai horren gaineko nazioarte mailako hainbat esperientziari buruz ere.

Parte hartzeko eta elkarrekin hausnartzeko gonbita luzatzen dizuegu.

Juan Maria Aburto Rike
Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua

[[Programaai eta izena emateko inprimakira heltzeko esteka](#)]

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak idatzizko prentsan izaniko eragina

2014an, lehenengoz egin da Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren txostenek edo jarduerak komunikabideetan izan ahal izan duten eraginaren kontrola. Eusko Jaurlaritzaren eguneroko prentsaren dosierra aztertzen da, Etxebizitzaren Euskal Behatokia aipatzen duten artikulua lortzeko.

Hortaz, kontuan hartu behar da idatzizko komunikabideen hautaketa bat dela, eta ez dituela kontuan hartzen gizarte-sareak, irratia eta telebista.

Alde horretatik, prentsako 40 artikulutan hartu dira erreferentzia moduan Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren txostenak edo jarduerak.

ARGITALPENEN KRONOGRAMA

OTSAILA	El Diario Vasco, otsailaren 4a: "No todo es compra y alquiler"
MARTXOA	El Diario Vasco, otsailaren 26a: "Vitoria y San Sebastián, cero pisos protegidos"
	El Correo, otsailaren 27a: "El Parlamento insta al Gobierno Vasco que grave los pisos vacíos con un canon"
	El Correo, martxoaren 6a: "Ajuste de precio"
	El Correo, martxoaren 6a: "Las viviendas usadas ya se ofrecen en Euskadi a precios de 2003"
APIRILA	DEIA, apirilaren 11: "Piden a los bancos que paguen la comunidad"
	El Mundo, apirilaren 11: "El Parlamento pide una lista negra de bancos y cajas morosos"
	El Diario Vasco, apirilaren 11: "Piden al Gobierno Vasco que publique la lista de bancos morosos con las comunidades"
	DEIA, apirilaren 12a: "La rehabilitación de edificios da aire al sector de la construcción"
MAIATZA	El Diario Vasco, apirilaren 25a : "El Gobierno central acepta que 500.000 pisos viejos de Euskadi se revisen de forma sin la norma estatal"
	El Correo, apirilaren 25a: "El Gobierno central permite que inspectores vascos revisen medio millón de pisos viejos"
	El Correo, apirilaren 25a: "14,5 millones en ayudas a la reforma de edificios"
	El Diario Vasco, maiatzaren 1a : "El Gobierno Central acepta que 500.000 pisos viejos de Euskadi se revisen sin la norma estatal"
EKAINA	El Correo, maiatzaren 19a: "El 80% de las licencias de los ayuntamientos vascos son ya para reformar edificios"
	El Correo, maiatzaren 19a: "Rehabilitación" Covadonga Solaguren
	El Diario Vasco, maiatzaren 19a: "El 80% de las licencias de los ayuntamientos vascos son ya para reformar edificios"
	El Correo, maiatzaren 30a: "El Observatorio Vasco de Vivienda cifra en 62.020 los pisos desocupados"
UZTAILA	El País, ekainaren 16a: "El auge inmobiliario deja a la vista una sobreoferta residencial en Euskadi"
	El Correo, ekainaren 23a: "Las ventas de pisos se reaniman en Euskadi"
	Noticias de Alava, uztailaren 22a: "La necesidad de vivienda crece para los vascos y la dificultad también"
	Deia, uztailaren 22a: "Los vascos ven difícil cambiar de vivienda"
ABUZTUA	El Correo, uztailaren 22a: "La demanda de pisos para emanciparse cae en Euskadi por falta de jóvenes y empleos"
	El Diario Vasco, uztailaren 22a: "La demanda de pisos para emanciparse cae en Euskadi por falta de jóvenes y empleos"
	El Mundo, uztailaren 22a: "Casi 62000 familias cambiarían de vivienda"
	Noticias de Gipuzkoa, uztailaren 22a: "Mas de 60000 familias vascas quieren cambiar de vivienda"
IRAILA	El Correo, uztailaren 28a: "Menos renuncias a los pisos protegidos"
	El Diario Vasco, uztailaren 28a: "La VPO se esfuma en renta vitalicia"
	El Correo, uztailaren 26a: "Alerta contra las hipotecas de VPO por una renta vitalicia "
	Etxebizitzaren prezioa euskal herritarren gogokoa al da?
AZAROA	Etxebizitza oraindik ez da merkatu Euskadin; Espainian, berriz, goraka hasi da
	El Correo, urriaren 24a: "Los pisos vacíos que se podrían alquilar ya en Euskadi suman 42.000 el doble que en 2007"
	El Correo, urriaren 24a: "Euskadi es la comunidad con menos pisos vacíos de España"
	El Diario Vasco, urriaren 24a: "Los pisos vacíos que se podrían alquilar ya en Euskadi suman 42.000 el doble que en 2008"
AZAROA	Noticias de Gipuzkoa, urriaren 24a: "Aburto se propone poner en alquiler las 62,020 viviendas vacías de la CAV"
	Noticias de Alava, urriaren 24a: "Aburto apuesta poner en alquiler las 62.020 viviendas vacías de la CAV"
	Deia, urriaren 24a: "Aburto apuesta poner en alquiler las 62,020 viviendas vacías de la CAV"
	El Diario Vasco, urriaren 29a: "Soy el alcalde, ¿Quiere alquilar su piso vacío?"
AZAROA	El Diario Vasco, azaroaren 3a: "Más de la mitad de los adjudicatarios de VPO en Gipuzkoa renuncia al piso"
	El Correo, azaroaren 2a: "El País Vasco edificará cerca de 2000 pisos protegidos pese a tener 1500 sin vender"
	El Correo, azaroaren 17a: "200.000 pisos se han reformado con la ayuda del Gobierno Vasco en doce años"

Laguntzaileak

2014an, Etxebizitzaren Euskal Behatokia askotan aritu da elkarlanean beste batzuekin. Bilerak egin dira beste autonomia-erkidego batzuetako etxebizitza-sektoreko erakunde publikoekin eta haien sozietate publikoekin.

Era berean, informazio-truke eta elkarlan interesgarriak izan dira Estatuko zenbait unibertsitaterekin eta EAEko finka-administratzaileen lurralde-elkargoekin.

Herritarrek parte har dezaten Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako proiektuen laburpena eskatu du 2014an **European Institute of Public Administration (EIPA)** institutuak, haiek Europa

osoan herritarren parte-hartzeari dagokionez azpimarragarriak diren proiektuen adibide moduan argitaratzeko.

Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren barruan (zehazkiago, 2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Planaren barruan), halaber, elkarlana eta bilerak egin dira **Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria** izenekoaren arduradun eta kudeatzaileekin. Horren ondorioa izan da herritarrek parte hartzeko proiektuen laburpena eskatu izana, haiek liburuan jardunbide on moduan jasotzeko.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eraginkorki lagundu du 2014an, eta hala jarraituko du 2015ean, Etxebizitza Sailburuordetzak administrazioa berritzeko eta etengabe hobetzeko prestatzen dituen proiektuetan, Etxebizitzaren Euskal Behatokia erreferente metodologikoa baita haietarako, bai eta datu-oinarri sendoa ere.

Gainera, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren informazio-eskaerarako baliagarrienak izan daitezkeen datuak tratatzeko eta bistaratzeko tresnak ezartzen ari da, eta, aldi berean, web-diseinua eguneratzen ari da, erakargarriagoa izan dadin, eta nobedadeek presentzia handiagoa izan dezaten.